

Bizitza, obretan

'TXANTXETAN ARI ZARA, TUNNER JAUNA'

Izenburua. Txantxetan ari zara, Tunner jauna.

Jatorrizko izenburua: Vos plaisez, monsieur

Tanner. Egilea: Jean-Paul Dubois. Itzultzailea: Mikel

Garmendia. Argitaratze urtea: 2007. Argitaletxea:

Alberdania

INMA ERREA

“**I**DAZTEA bizitzaren jarraipena da. Soila izan behar du, aise heldu, egunak heltzen diren bezala”. Hitzok, 2004ko elkarrizketa batean esanak, Jean-Paul Dubois-enak dira, *Txantxetan ari zara, Tanner jauna* liburuaren egilearenak, eta literaturaz idazle horrek duen ikuspegia laburbiltzen dute. Jean-Paul Duboisek (Toulouse,

1950) ideia ezohikoak ditu literaturari buruz, eta haren liburuak ere –hemezortzi, 1984tik hona– ez dira oso arruntak. Duboisek izugarrizko arrakasta lortu du Frantzia azken urteotan bere liburuarekin, gaiak zein haiek jorratzeko erak elkarren artean oso diferentek izanda ere. Arrakasta horren arrazoiak azaldu nahian, hau esan zuen Duboisek, iaz, argitarara eman duen azken nobela (*Hommes entre eux*) dela-eta emandako elkarrizketa batean: “Badira momentu batzuk, oraingo kasu, non, arrazoi zehatzezinak medio, bat egiten baituzu jendearen bizipenekin”.

Txantxetan ari zara, Tanner jauna eleberriak –Mikel Garmendiak egin duen erako itzulpenari esker

Dubois-en idazlanetan euskaraz irakur dezakegun lehenak– jendea elkartzeko balio duten gai horietako bat jorratzen du: etxeko obrak. Jende askok ikusiko du bere burua islaturik narrazio honetako pasadizo batean edo bestean. Eta bere etxean obrak egin beharra pairatu duen orok bat egiten du eten gabe nobelako protagonistarekin.

Paul Tanner protagonistak herentzian etxe handi eta zahar bat jaso eta hura konpontzeak eragindako obra-zirimolaren erditik kontaktzen dizkigu behin obretan sartuta gertatu zaizkion guztiak, eta bide batez, obran aritzen direnen erretratu zehatzak egiten dizkigu.

Kontaktuz dibertigarriarekin irakurleek hartuko duten gozame-

naz gain, erretratu-bilduma hori da, nire iritziz, nobela honen lorpen handienetako bat, gizarte mendebaldarretako bizimoduaren berri zorrotza ematen baitigu Jean-Paul Duboisek, igeltsero, iturgin, argiketarien eta etxegintzako beste langileen inguruan arituta. Bestelako lanbideetako batzuk ere, notarioak kasu, erretratu-sortan sartu ditu Duboisek.

Egilea, bestalde, ez da konformatzen gertaeren kontakizun hutsarekin, eta gogoetarako gai bilakatzen du etxegintza. “Sekula ez gara etxe baten jabe. Okupatu egiten dugu. Onenean ere, hantxe bizi gara”, dio batean. Eta beste batean, obrek sexu-grina oro suntsitzen duela aitortzen digu. Aurrerago lege orokortzat jotzen ditu gre-

mioen arteko ezinikusiak. Baina agian hausnarketa sakonena metafora hau da: “Hainbeste zulo estali eta hainbeste espazio bete ondoren, barrutik hustua sentitu. Hain hustua. Eta bakarrik”.

Duboisek umore garratza eta apaindurarik eza baliatzen ditu, kontakizuna harilkatzeko. Narrazioa pasarte laburrez osatua da, non idazkera zuzeneko eta artifiziorik gabekoa baita, zeharbide gutxiak. Hori guztia bat dator egilearen literatur-irizpideekin: Duboisek –bere burua Jon Updike, John Fante, Cormac McCarthy, Philip Roth edo Charles Bukowski idazle amerikarren miresletzat jotzeaz gain– maiz aldarrikatu du soiltasuna, literatur balio gisara.